

TXIRIKORDA. Belaunaldiarteko Etxebizitza Komunitarioa



Etxebizitza



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Herritarren partaidetza
eta enplegua



Aire zabaleko eremuak
eta eraikinak

TXIRIKORDA. Belaunaldiarteko Etxebizitza Komunitarioa

Gaur egungo etxebizitza eredua eta etxebizitzaren prezioa ez datoz bat herritarren beharrekin, eta egoera horren aurrean beharrezkoa da eredu berriak diseinatu eta ezartzea, eta etxebizitza publikoak eta komunitarioak sustatzea.

Bereziki gazteak eta adinekoak gelditzen dira baztertuta gaur egungo etxebizitza eskaintzatik. Lehenengoak diru sarrerengatik, eta bigarrenak faktore bat baino gehiagorengatik: irisgarritasuna, herrigunetik urrun egotea, bakardadea, beharrak aldatzea eta abar. Horregatik, pentsatu dugu bi kolektibo horiek elkartu egin daitezkeela, eta batzuen kemena eta besteen esperientzia batuta txirikorda bat egin dezaketela.

Proiektuaren nondik norakoak zehazteko asmoz, parte hartzeko prozesu bat jarri dute martxan udal gobernua eta udal teknikariek.

Prozesu horren bidez, 3 dokumentu tekniko-administratibo hauen oinarriak jarri dira:

- Udal ordenantza bat, etxebizitzak esleitzeko baldintzak eta arautegia ezartzeko.
- Harrera gida bat, Txirikordan bizi nahi dutenentzat.
- Proiektu arkitektonikoa.

ZER DA TXIRIKORDA?

Usurbilgo Udalak bultzatu duen belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren proiektua da Txirikorda. Proiektu berritzailea da Euskal Herrian. Nagusiki bi arazo hauei egin nahi zaie aurre haren bidez:

- Gure herriko gazteen zailtasunak etxebizitza bat izateko.
- Zaintzaren afera gure komunitatean, eta bereziki adinekoen zahartze aktiboa. Horregatik, honako hau proposatzen dugu: bi kolektibo horietako pertsonak alokairuan bizitzeko eraikin bat, herriarekin harremana izateko eredu desberdin bat bultzatzeko.

NOLAKOA DA TXIRIKORDA?

Ugartondon dagoen eraikin bat da, eta 16 etxebizitza ditu guztira; logela bakarrekoak dira 10, eta bi logelakoak 6. Etxebizitza bakoitzak egongela, sukaldea, komuna, logela(k) eta terraza ditu. Gainera, eraikinak eremu komunak ditu: terraza teilatuan, ataripea sarreran, garbigailuak, biltegiak, sukaldea, jantokia, egongela, liburutegia, erabilera anitzeko gela eta baratza.

NORENTZAT DA TXIRIKORDA?

Bi kolektibo hauetan pentsatuta sortu dugu Txirikorda: etxebizitza baten jabe ez diren 18-30 urteko gazteak eta 60 urtetik gorako pertsona pentsiodunak eta desgaitasunik gabeak. Bi kasuetan, ezinbestekoa da Usurbilen errolatuta egotea, duela 3 urte baino lehenagotik. Eskerak bakarrik bizitzeko izan daitezke edo beste norbaitekin bizitzeko, betiere denek baldintzak betetzen badituzte.

NOLAKOA DA ALOKAIRUA?

Gazteentzat denbora mugatukoa izango da alokairua, 5 urte gehienez. Adinekoentzat, aldiz, denbora mugagabea izango da alokairua, betiere desgaitasunik ez duten bitartean. Errenta gutzizko diru sarreren % 15 izango da, eta gutxieneko bat jarri da: 90 euro hilean.

Etxebizitza bat jabegoan duten adinekoen kasuan, kontratua sinatzen denetik urtebeteko epean etxebizitza hori hutsik ez egoteko konpromisoa hartu behar dute.

ZER KONPROMISO HARTU BEHAR DIRA?

Txirikordan komunitatean biziko gara, eta, horretarako, ezinbesteko baldintzak dira hauek, besteak beste: hurkoa errespetatzea, parte hartzea eta komunitateak adostutako zeregin indibidualak eta kolektiboak betetzeko konpromisoa hartzea. Txirikordak energia berriztagarrien eta bertako produktuen kontsumo arduratsuaren aldeko apustua egin du. Gainera, Txirikordak eragile aktiboa izan nahi du Usurbilgo bizitza publikoan, eta horregatik, jarduerak bultzatuko ditu bai barruan bai kanpoan.

1. Erakunde sustatzaileak

Usurbilgo Udala, Hiritik AT koop. eta LZB arkitektoak koop.

2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

3. Xede taldea

Usurbilgo gazteak (18-35 urte) eta mendekoak ez diren Usurbilgo adinekoak (60 urtetik gorakoak).

4. Lurralde eremua

Usurbil (Gipuzkoa)

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Belaunaldiartekoa, parte hartzea, lagunkoitasuna, arreta eta zaintza, Gipuzkoa, etxea

7. Helburuak

- 1- Gazteen emantzipatzeko beharra.
2. Adinekoentzako etxebizitza eta zaintza eredu berrien beharra.

8. Metodologia

Proiektuaren nondik norakoak zehazteko, parte hartzeko prozesu bat egin da. Prozesu osoak hiru helburu nagusi izan ditu:

1. Usurbilgo biztanleek diseinu prozesuan parte hartzea.
2. Etxebizitza proiektua diseinatzea lau parametro hauek era integrarean landuz:
 - izaera
 - etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak
 - diseinu arkitektonikoa
 - funtzionamendua
3. Erabakietan herritarren, udal teknikarien eta udal taldearen arteko kontsentsua lortzea.

Prozesu osoan, eragile hauen parte hartzea bultzatu dugu etxebizitza komunitarioaren diseinuan:

- Herritarrak oro har; izan ere, etxebizitza eredu berri bat diseinatzeari buruz ari garenez, herri proiektu gisa hartu behar dugu.
- Sektore espezifikoak: kasu honetan, gazteak eta adinekoak, haien beharrak ase nahi baitira proiektu honen bidez.
- Herri eragileak: herriko elkarteak eta herri mugimenduak, bereziki gazteekin eta adinekoekin lan egiten dutenak.
- Udal zinegotziak eta teknikariak; esan bezala, kontuan izan behar dira baldintza politiko, tekniko eta administratiboak.

Proiektua osotasunean garatzeko, zenbait saio egin dira ildo hauek lantzeko:

AURRETIKO LANKETA: solasaldiak eta aurkezpen sektorialak prozesua egokitzeko.

Etxebizitzaren IZAERA orokorra.

Herritarrak eta ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO BALDINTZAK:

Sektore espezifikoaren beharrak, pertsona kopurua eta bakoitzari jarri beharreko baldintzak zehazteko.

EREMUEN DISEINUA:

Eremu pribatuak eta komunitarioak, herriari irekitako eremuak eta gazteen eta adinekoen eremu espezifikoak diseinatzeko.

BIZIKIDETZA ETA FUNTZIONAMENDUA:

Kanpora eta barrura begira onartutako jarreraren irizpideak ezarri behar dira, bizikidetzaren eta barne araudi baten oinarriak finkatzeko. Horrela, sortuko den komunitatearen eta Udalaren arteko harremana eta barne antolaketa zehaztuko dira.

Ilido bakoitzean parte hartzeko zenbait saio egin dira, eta gero, kontraste politiko-teknikoa. Prozesu horren bidez, 3 dokumentu tekniko-administratibo hauen oinarriak jarri dira:

- Udal ordenantza bat, etxebizitzak esleitzeko baldintzak eta arautegia ezartzeko.
- Harrera gida bat, Txirikordan bizi nahi dutenentzat.
- Proiektu arkitektonikoa.

9. Alderdi berritzaileak

Arazoa aski ezaguna da: gazteen zailtasunak emantzipatzeko eta adinekoen bakardadea, bazterketa soziala, urruntasuna eta abar.

Ahultasun egoera horretatik aukera berriak sortu nahi ditugu, erantzun publiko eta komunitarioa emango duten etxebizitzak sustatuz, bi kolektibo horiek elkarrekin bizi daitezzen.

Esperientzia guztiz berritzailea da. Gainera, parte hartzeko prozesu bat egin da hasieratik, etorkizunean bizilagun izan daitezkeen pertsonen etxebizitzaren diseinuan eta funtzionamenduan parte har dezaten.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Sarreran azaldu dugun moduan, Txirikordan ezinbestekoa izan da herritarrek diseinu prozesuan parte hartzea, proiektuaren bidez eredu berritzaile bat martxan jartzeko.

Herritarren parte hartzeaz gain, prozesu osoan kontuan izan dira baldintza teknikoak eta administratiboak.

Saio batetik bestera herritarrekin landutako guztia mahai teknikoak balidatu du, hurrengo saioan bai herritarren bai teknikarien oniritziarekin beste urrats bati ekin aurretik.

Horretarako, eskema honetan oinarritutako metodologia erabili da:



PARTE HARTZEKO SAIOA
Herritarren iritziak biltzeko
KONTRASTE
Udal politikariekin eta teknikariekin
EMAITZAK
JARRAIPENA ETA ITZULTZEA